

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, 2021-2027 ALDIAN
ESKUALDE GARAPENeko EUROPAKO FUNTSAREKIN (EGEF) BATERA FINANTZATUTAKO
EKIMENEN ESPARRUAN IRUZURRA PREBENITZEKO ETA HAREN AURKA
BORROKATZEKO KONPROMISOARI BURUZKOA**

Arabako Foru Aldundiak bitarteko erakunde gisa eta EAEko 2021-2027 EGEF Programaren onuradun gisa jarduten du, erakundeak Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin batera finantzatutako jarduketei dagokienez.

Testuinguru horretan, adierazi nahi du konpromisoa hartzen duela arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar altuenekin, eta bat egiten duela osotasunaren, objektibotasunaren eta zintzotasunaren printzipio zorrotzenekin, berarekin harremana duten eragile guztiek ikus dezaten bere jardura iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakoa dela, alderdi guztietatik. Erakundeko langile guztiek, zuzendaritza taldeko kide guztiak barne, konpromiso hori bere egin eta partekatzen dute.

Halaber, erakundeko enplegatu publikoek konpromisoa dute, besteak beste, interes orokorra zaintzeko, ordenamendu juridikoa beteta eta hari helduta, eta printzipio hauekin bat etorritik jarduteko: objektibotasuna, zuzentasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoarekiko ardura, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko errespetua (Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52. artikulua).

Horrez gain, erakunde osoa gidatzeko ardura duten kargu publikodunek bat egiten dute Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoko Kargu Publikodunen eta Ordezkarien Gobernu Onerako Kode Etikoarekin. Kode hori funtsezkoa da zuzentasunaren erakunde esparruan, eta, doktrinak eta nazioarteko erakundeek proposatutako jarraibideei jarraituz, bi helburu ditu: batetik, kargudun politikoen jokabidea gidatzea, eta, bestetik, herritarrek haien jardunean duten konfiantza areagotzea.

Politika horien xedea da erakunde barruan kultura bat sustatzea iruzur egiteko gogoia kentzen duena eta errazten duena iruzurrari aurre hartu eta hura antzematea, eta kasu horiek kudeatzeko, prozedura eraginkorrak garatzea sustatuko da.

Horretarako, Arabako Foru Aldundiak Iruzur Arriskua Ebaluatze eta Kudeatzeko Taldea (IAEKT) dauka. Talde hori eratu zen Arabako Foru Aldundiak iruzurraren aurka borrokatze eta

prebenitzeko hartutako konpromisoa eraginkortasunez betetzeko, EGEFek (Eskualde Garapenerako Europako Funtsa) kofinantzatutako eragiketen testuinguruan.

Era berean, erakunde honek eginkizunak bereiztea bermatzen duten prozedurak ditu. Lankidetzan jarduten dute prozesuen arduradun eta kudeatzaileek, kasuan kasuko erantzukizun arloen barruan barne kontroleko sistema egoki bat dagoela ziurtatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak arduraz ezartzen direla bermatzeko.

Arabako Foru Aldundiak iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak jarri ditu abian EGEFekin batera finantzatutako proiektuen testuinguruan, aurreko aldietan lortutako esperientzian eta iruzur arriskuaren aldian behingo ebaluazioetan oinarrituta. Ildo horretan, iruzur zikloaren fase guztietara bideratutako neurriak hartzen ditu, iruzur kasuak prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko, halakorik gertatuz gero. Gainera, baditu prozedurak, salatzeiko antzeman litezkeen irregulartasunak edo iruzur susmoak, bai jakinarazpenetarako barruko bideen bidez bai zuzenean Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalera (SNCA) jota, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin (OLAF) koordinatuta. Txosten guztiak konfidentzialtasun zorrotzenez eta gai horren gaineko araudiaren arabera tratatuko dira.

Azken finean, Arabako Foru Aldundiak iruzurrarekiko eta ustelkeriarekiko zero tolerantziako politika dauka, eta kontrol sistema indartsu bat ezarri du, bereziki diseinatu dena ahal dela iruzur egintzei aurre hartu eta haiek antzemateko, eta haien eragina zuzentzeko, baldin eta halakorik egiten bada.